DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostiako alkatea
El Alcalde de San Sebastián

Ijentea, 1 - Tel. 010 - 943481005 - www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

# GIZA ESKUBIDEEN GAINEKO BATZORDE EZ IRAUNKORRA ERATZEA

“Udalbatzaren Organo Araudiak honako hau jasotzen du bere 148. artikuluan:

> *"Batzorde aldi baterakoak zeregin jakin baterako, zerbait ikertzeko, proposamenak prestatzeko edo antzeko helburuen baterako eratzen dira, Alkatetzak, Tokiko Gobernu Batzarrak, udal talde batek proposaturik edo Udalbatzak erabakita, eta ez dute ebazmenik.*
>
> *Araubidetzat erabiliko dituzte eratze erabakia eta, hura osatzeko, Batzorde iraunkorrak erregulatzeko arauak.*
>
> *Berez iraungiko dira sorrarazi zituzten zereginak amaitzeaz batera."*

Dostiako Udalak giza eskubideak babesteko egiten duen lanak eta eskubide horiek hobe babesteko balio duten jarduerak bultzatzeko eta elkarbizitza sustatzeko agertzen duen konpromiso garbiak behar-beharrezkoa dute lan hori bideratuko duen tresna bat, planteatzen diren gaiei modu antolatuan eta ikuspegi anitz batetik heldu ahal izateko.

Horregatik beragatik, beharrezkotzat jotzen da Giza Eskubideen Batzorde ez iraunkor bat sortzea. Batzorde horretan Udal Talde Politiko guztien ordezkari bana eta Alkatea bera egotea proposatzen da, eta giza eskubideen eta elkarbizitzaren aldeko udal politika bideratzea izango du eginkizun nagusia.
Bere betebeharrak egitean, eta Batzordeko

# “ACUERDO DE CREACIÓN DE LA COMISIÓN NO PERMANENTE SOBRE DERECHOS HUMANOS

“El Reglamento Orgánico de Pleno contempla en su artículo 148 lo siguiente:

> *“Las Comisiones no permanentes son las Comisiones constituidas, a propuesta de la Alcaldía, de la Junta de Gobierno Local o de un Grupo municipal, por acuerdo del Pleno para un asunto concreto, con fines de estudio, elaboración de propuestas u otros de naturaleza análoga, sin carácter resolutorio.*
>
> *Se regirán por su acuerdo de constitución y, supletoriamente, por las normas reguladoras de las Comisiones permanentes.*
>
> *Se extinguirán automáticamente una vez hayan terminado de desarrollar las funciones que motivaron su creación.”.*

La labor de defensa de los derechos humanos que viene realizando el Ayuntamiento de San Sebastián y su compromiso de impulsar actividades que sirvan para la mejor defensa de los mismos y la promoción de la convivencia, hacen necesario un instrumento que la canalice y que permita abordar las cuestiones que se planteen de una forma organizada y plural.

Es por ello que se considera necesario proceder a la creación de una Comisión no permanente sobre DDHH que, integrada por un representante de todos los Grupos Políticos Municipales, más el Alcalde, canalice la política municipal en defensa de los derechos humanos y la convivencia.

En el desarrollo de su labor, dicha Comisión,

10740n XVII

Lehendakariak gonbidatuta, pertsona ezagunen, erakundeen, taldeen eta modu batean edo bestean aztergaiekin halako lotura duten edo beren jarduera giza eskubideen defentsaren esparruan garatzen duten pertsonen aholkularitza eta laguntza eduki ahal izango du Batzorde horrek.

Giza Eskubideen Ordezkaritzari atxikita egongo da Batzordea, eta aipatu ordezkaritzaren mendeko administrazio unitateek emango diote arreta.

Honako hauek izango dira Batzordearen helburu nagusiak:

- Giza eskubideei buruzko ekimenak eztabaidatzea eta adostasunetara iristea; horretarako, honako gai hauek aztertuko dira:

- Balio demokratikoak hedatzeko ekimenak eta giza eskubideen aurreko kontzientziazioa.

- Giza eskubideen urraketei eta bortxaketei buruzko salaketak.

- Arreta indarkeriaren eta terrorismoaren biktima guztien eskaerei.
- Biktimei beren egoera aitortzeko eta omentzeko ekitaldiei buruzko gogoeta.
- Bakearen eta bizikidetzaren aldeko ekimenak.
- Preso donostiarren egoera espezifikoaren tratamendua.

- Tolerantziaren aldeko eta gutxiengoak babestearen aldeko kanpainak.

- Proposamenak eta adierazpenak beste udal organoei aurkeztea.

Eskuarki hilean behin bilduko da Batzordea, eta Batzordeko Idazkariak edo hark eskuordetutakoak idatziko du bileran esandakoak jasoko dituen agiria.

a invitación de la Presidencia, podrá contar con la asistencia y colaboración de personalidades, organismos, colectivos o personas que de alguna manera estén vinculados a estas cuestiones o que desarrollen sus actividades en el campo de la defensa de los derechos humanos.

La Comisión quedará vinculada a la Delegación de Derechos Humanos, y será atendida por las unidades administrativas dependientes de tal delegación.

La finalidad principal de esta Comisión será:

- Debatir y llegar a consensos en iniciativas relativas a los derechos humanos; para ello abordará los siguientes temas:

- Iniciativas para la difusión de valores democráticos y concienciación sobre derechos humanos.
- Denuncias sobre vulneraciones y violaciones de los derechos humanos.
- Atención a las demandas de todas las víctimas de la violencia y el terrorismo.
- Deliberación sobre actos memoriales y de reconocimiento a víctimas.
- Iniciativas de paz y convivencia.
- Tratamiento de la situación específica de los presos donostiarras.
- Campañas a favor de la tolerancia y de la protección de las diferentes minorías.

- Elevar propuestas y pronunciamientos a otros órganos municipales.

Su periodicidad será mensual con carácter general y se levantará acta de las reuniones por parte del Secretario de la Comisión o persona en quien delegue.

Legegintzaldi osoan egongo da indarrean Giza Eskubideen Batzorde ez Iraunkorra.

Hori dela eta, erabaki hau hartzea proposatu nahi dio alkateak Udalbatzari:

**ERABAKIA**

- Giza Eskubideen Udal Batzorde ez iraunkorraren eraketa onartzea, gorago adierazitako osaerarekin, eginkizunekin, funtzionamendua-rekin eta iraunaldiarekin."

La Comisión Permanente de Derechos Humanos estará vigente durante toda la presente legislatura.

Por ello, esta Alcaldía propone al Excelentísimo Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente

**ACUERDO**

- Aprobar la constitución de la Comisión Municipal No Permanente sobre Derechos Humanos, con la composición, funciones, funcionamiento y vigencia antes señaladas."

Donostian, 2019ko ekainaren 17a

ALKATEA

Eneko Goia Laso